

Haur eta Gazte Literatura

Ur: Euriaren liburua.  
Juan Kruz Igerabide

Irudiak: Elena Odriozola  
Musika: Oihane Igerabide  
Denonartean, 2014



## Jolasten jarraitzeko gonbitea

NOLA DEFINITU jolasak, musika, liburua, irudi solteak... jasotzen dituen produktua? Horixe baita kutxatxo marroiaren barnean Denonartean argitale-txeak eskaintzen diguna. Juan Kruz Igerabideren testuak, Elena Odriozolaren irudi solte ugari eta CD bat musikaz, errezitatutako ipuin eta poemaz osatua, koro, musikari, interprete ugariaren lana batuz. Nik sorpresa moduan definituko nuke. Uste-kabe atsegin eta polita.

Kutxan bada liburuxka txiki bat guztiaren berri emanaz eta jolasetarako gonbitea luzatzen duena: "Liburu hau txikitako euri-jolasen oroitzapenetatik jaio zen. Elena Odriozolaren irudi hauek testuekin euri-jolasean jaio ziren. Oihaneren musika hau euri doinuekin jolasean jaio zen. Grabazio hau lagun arteko jolasean jaio zen, hitzaren euri-festa batean".

Ezustekoen kutxa hau euri-jolaserako gonbita duzu, mundura "euri-ekarri" eta bere itsasora garamatzen bizitzarekin jolasteko. Haur, guraso, eta lagun ugari bildu gara, testuak grabatuz jolastera, ontzat eman arte errepikatuz, hitzaren zirrara sentituz. Euriaren eta bizitzaren jolas gisa jaio zen honekin jolasten jarraitzera gonbidatzen zaitugu ba."

Eta horixe da kutxatxoa. CDaren lehen kanta *Bada-tor euria* izeneko Kenyako kantu herrikoia dugu; ondoren liburuan ageri diren testu eta poema batzuen errezitaldia. Izan ere, liburua ipuinez eta poemaz osaturik

dago, *Ur, erori nabi ez zuen tanta* liburuko protagonista tanta horixe da, baina tanta horren hainbat gorabeheren ondoren (bai eta hauetan tartekaturik ere) badira euriarekin zerikusia duten zenbait poema, gehienak laburrak, hiru bat lerrokoak, beste batzuk pixka bat luzeagoak: "BESTERA BEGIRA./ Eskolako lanak egin orde/ sor eta lor zaude/ euriari begira;/ aitak, ahapeka,/ jarraitzeko eskatzen dizu,/ baina euriak hobeto xuxurlatzen du". Metafora hutsak diren poema llaburrak ere badira: "Kristalezko matxinsaltok:/ Euria"; edo lurralde urrituetara eramaten gaituztenak: "AFRIKAKO GAUA EURIA EGIN ONDOREN. Neskabila beltzaren begiak/ izarrez beterik; / zerua hegan dator/ oso behetik".

Juan Kruz Igerabideren testu hauekin batera kutxak Elena Odriozolaren lamina ugari dauzka; batzuk paperean eginiko irudiak, beste batzuk plasztikoan marraztutako euriak, "arinenetatik hasi eta mardul eta zeharkakoetaraino", bi irudiak, paperezkoak eta plasztikozkoak batuz jolas dezagun, irudi ezberdinak sor ditzagun.

*Ur: Euriaren liburua* lan ederra irakur, entzun eta jolas egiteko gonbitea da. Baita hemen ageri izan diren irudi, poema, ipuin eta kantuen antzekoak sortzera ere. ■

Xabier Etxaniz Erle



baga-biga

sendotasuna  
musikan

MANAGEMENT: (+34) 618 072 076

baga-biga musika irteak  
tel: 618 072 076 / 026  
www.baga-biga.com / info@baga-biga.com



korrontzi



ets



txapelpunk



hesian



doctor deseo



vendetta



emon



xaiko



eskean kristö